



❖ HERNANI'N MUSIK
**Alasdair Fraser eta
Natalie Haas-en
kontzertua etzi**

Alasdair Fraser eta Natalie Haas ostegunean ariko dira Biterin, 19:45etatik aurrera, mundu mailan famatu egin diren biolina eta txeloa. Euren azken lana aurkeztuko dute, *In the Moment*. Mikel Laboaren *Txoriak* Txori kanta ere joko dute. ||

❖ PEÑA OTAÑO

**Barrikotea izango
da abenduan eta
izen ematea
zabalik dago**

Urtero bezala, barrikotea antolatu du Peña Otaño elkarteak. Abenduaren 17an izango da eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Abenduaren 14a baino lehenago eman behar da elkartearen bertan. ||

◆ ELKARTE ARTEKO
MUS TXAPELKETA

**Finalaurdenak
jokatuko dira gaur**

Elkarte arteko Mus Txapelketa aurrera doa. Gaur finalaurdenak jokatuko dira Xalartan. Honako partidak jokatuko dira: Karobi A (Paco-Paxi) - Gure Txoko A (Joxe Mari-Moises) Txantxangorri B (Jonkar-Joseba) - Xalartara B (Julio-Bixente). ||

❖ EMAKUMEEN
AURKAKO BIOLENTZIAREN
KONTRAKO EGUNA

Zineforuma gaur

Emakumeen Aurkako Bolelntziaren Kontrako Eguna izango da azaroaren 25ean, ostegunean, eta Berdintasun Kontseiluak eta Txoko feministak hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, esaterako, laburmetrai foruma izango da. *Mi señora, Desenfocada, Mejor sin él*, eta *Haizea* pelikula emango dituzte 18:00etan Biterin. ||

Gipuzkoako abeslari onena, Iosune Marin

Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa irabazi zuen Marinek igandean, Donostiako Antzoki Zaharrean, 'Irlaren aurrean' berak egindako kantuari esker.

IOSUNE Marin hernaniarrak irabazi du Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa. Aurten 14garren edizioa zuen txapelketa, eta parte hartzaile ugari izan dira; bai bakarka, bai bina-ka, eta bai taldeka. Finalera 16 pasa dira; denetan onena, Marin; 17 urteko hernaniarra. Berak egindako kantuk txoratu zituen igandean entzuleen belarriak, eta epaimahaikoenak. *Irlaren aurrean*, gertaera pertso-

nal bat kontatzen duen kantua, berak idatzi eta konposatua.

Gitarra lagun zuela, inoren laguntzarik gabe aritu zen Marin. Beretzat txapela, eta CD bat grabatzeko aukera, beste sarituekin batera. Marinek ez zuen espero sari hau, «oso jende ona iritsi zelako finalera. Txapelak poz haundia eman dit, eta indarra, neure kantuk egiten segitzeko». ||



Iosune Marin hernaniarra, atzo, Santa Zaziliako kontzertuan.

❖ DISKO AURKEZPENA

Ornitorrinkus disko-liburua, Maialen Lujanbio eta Judith Monteroren eskutik

Hirukoteak egin du lana; hirugarrena Xabier Erkizia dute. 2006an hasitako bidearen emaitza da lan hau. Aurkezpen kontzertua Artelekun emango dute ostegunean, eta Hernanin abenduaren 28an. CDa salgai dago Hernaniko Kronikan eta Doberan, 15 euroan. Bazkideek 12 euro.

AHOTSA, saxofoia eta elektronika; bertsoa, musika garaikidea eta hotsak; Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkizia. Ornitorrinkus izeneko disko-liburua kalera-
tu du hirukoteak, 2006an hasitako bideak emaitza hori eman du. Itxuraz, bata eta bestea urruti daude (saxo, bertso eta elektronika), eta elkartu egin dituzte, hizkuntza berri trinko bat sortzeko.

Definitzen erreza ez dena, sailkapen guztietatik kanpora geratzen dena... hori da Ornitorrinkoa. Sinbolo bezala erabili dute euren lanean, esperimeta-
zioa helburu hartuta. Objektua Xabier Gantzarain eta Eneko aristik diseinatu dute. Jose Belmonte marrazkilariak soinu piezak irudi bihurtu



ditu. Jakoba Errekondo, Joseba Sarrionandia, Xabier Erkizia eta Ixiar Rozasen testuak ere badira lan honetan, Lujanbioarenaz gain, noski.

Ostegunean, 19:00etan Donostian dute emanaldia, Artelekun. Abenduaren 28an, Hernanin izango da, Bertsolatan.

Doberan eta Kronikan salgai dago (Larramendi, 11), eta baita interneten ere, www.ornitorrinkus.org. ||



Judith Montero eta Maialen Lujanbio, Venezian emandako kontzertu batean.

Arrosak
edergintza

Antziola 9
Tel. 943 33 02 89

'Cavita'zioa
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

ORAIN, **TRATAMENDU BONOAK** HARTUZ GERO,
AURPEGIKO TRATAMENDUAK
OPARITZEN DIZKIZUGU.

Zatoz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

TERMO SALUD
cavitación

gerria
6 sesio
2,5 cm

abdomena
6 sesio
1,6 cm

izterrak
6 sesio
2,8 cm

kixkal
taberna

gure giroaz
gozatzeko
ZATOZ !!!

Gosariak, pintxoak,
razioak, kafiak, kopak,
garagardoak, musika...

kale nagusia 15, Hernani.

TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauetz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA

GAUR Giro hotzarekin jarraituko dugu, lainoak izango dira nagusi eta zaparradak botako ditu tarteka. Temperatura antzekoa izango da: Min.7° / Max.11°.

BIHAR Lainoak izango dira nagusi berriz ere, eta zaparradak botako ditu tarteka. Tenperaturak hotzetik jarraituko du. Min.7° / Max.9°

(euskalmet)

◆ ERREMONTEA - AZYSA TORNEO - BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA

Finalerdiko pasea, 31 tantotan

Urtasun eta San Miguel sartuko dira finalerdietara, 31 tanto egiten badituzte. Ezkurak eta Olazarrek hori galerazi nahiko diete, gaur, 16:00etan Galarretan.

BEREAK eta bi egin beharko ditu gaur Ezkurak, buruz buruko txapeldun haundiak, Binakako Txapelketako finalerdian sartu nahi badu. Olazar eta biak (biak doneztebarrak), irabazi egin behar

dute, eta kontrarioek ezin dizkiete 31 tanto egin. Eta ez dira edozein, kontrarioak. Urtasun eta San Miguel, hain zuzen, sekulako txapelketa egiten ari diren bi gazte, gaur, faborito aterako dira. Finalerdietara

sailkatu diren beste bi bikote hauek dira: Juaristi eta Lizaso, eta Urriza eta Etxeberria III. Hirugarren bikotea gaur eza gutuko dugu, eta laugarrena aste honetan, Zeberio Iia eta Ion, edo Uterga eta Urrutia. II



Bederatzi herri, euskal jokoetan. Bederatzi herritako ikasleak bildu ziren joan den ostiralean Hernanin, euskal jokoetan lehiatzeko. Lagunarteko bilkura izan zen, 15-16 urteko gazteek euskal jokoak ezagutzeko antolatua, Xiba taldeak. Azpeitia, Deba, Beasain, Olereta, Villabona, Donostia, Bergara eta Eskoriatza izan ziren, Hernaniz gain. Irabazlea, lagun giroa. II



Santa Zezilia kontzertua, jendez beteta, Musika Eskolaren eskutik. Guraso, lagun eta zale-tu asko bildu ziren atzo Biterin, Udala Musika Eskolako musika ikasleak entzuteratzen, Santa Zezilia eguneko kontzertuan. Musikarien zaindariaren omenez, kontzertu asko izaten dira azaroaren 22aren bueltan. Joan den asteburuan Udala Musika Bandak eman zuen kontzertua; datorren larunbatean, Kantuz abesbatzak kantatuko du 19:00etan Sandiusterrin, txistulari, metal boskotea eta akordeoilarien laguntzarekin. II

◆ ELUR TXORI - MUSA

Mus Txapelketa bihar hasiko da, Elur Txorin

Hamahiru partida jokatu dira aste honetan, Elur Txorin Mus Txapelketari hasiera emateko. Bihar lau izango dira: Joxe-Manolo /Alvaro-Pablo; Patxi-Javi/Diego-Iñaki; Rafa-Javi/Eneko-Josu; eta Carlos-Txarli/Ramon-Peli. Ostegunean, beste bederatzi partida dituzte: Josu-Gorka/Polo-Alvarez; Iturritza-Esnal/Rober-Antonio; Mikel-Olazar/Javi-Felix; Angel-Txemari/Paco-Biurrarena; Kixko-Joshan/Gorka-Urriarte; Ekaitz-Esteban/Artetxe-Aierdi; Boti I-Boti II/Xabier-Kijera; Otegi-Burugain/Pako-Joxan; Pottoko-Arraras/Bilbao-Goñi. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



BITTORI IZAGIRRE ZABALEGI

ANDREA
(Pedro Lujanbioren alarguna)
Atzo hil zen Hernanin, 100 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta



- Goian Bego -

Seme-alabak: Juani eta Enrique Ibabe, Maria Luisa, Milagros eta Luis Antonio Plaza (†); bilobak: Ana eta Joxe, Maite eta Koldo, Marta, Juanpe, Paul, Arantza eta Igor, Alberto, Ramon eta Mikel; birlobak; ahizpak: Justa, Pilar eta Juana; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko azaroaren 23an

Helbidea: Akarregi-Berri. 3-3.ezk.

OHARRA: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Loft bat alokagai Hernanin. 600€. Deitu: 652 70 72 15
Motoa salgai. T-MAX black max, oso ondo zaindua (5500€). Deitu: 630 432 781.
Pisua alokagai: Antzolan (residentziala), 2 logela, saloi, sukalde-komedorra, komuna (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54
Ingelesko eskola partikularrak ematen ditugu. Ingeles filologoa eta tituludun natiboa. Maila guztiak, Business English, elkarriketa... Deitu: 652 704 995 / 639 371 824
Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi haundia, sukaldea. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordaintzen. Deitu: 629 682 827.
Kotxea salgai, Peugeot 206a. 9 urte ditu (2.000 euro). Deitu 943 55 04 79.
Altzariak salgai: 2 ohe (90cm), mesilla, sinfonier eta armairua / 2 butaka, 2 armairu eta "tresillua" (Haritza, rustikoa). Merke eta egoera onean (1500€). Deitu: 649 006 061.
Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€. Deitu: 658 058 330.
Pisu polita salgai Karabelen. 2 logela, dena kanpora, guztiz berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.
Pixua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta dena kanpoaldera ematen du. Prezioa: 32.000.000pza. Deitu: 619 813 357
Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m2, 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€ Deitu: 609 823 472
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoeitea. Terapiak energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

leiholux
LEIHOAK, PERTSIANAK ETA ITXITURAK.

Zure etxeko leihoak berritzeko
DIRU LAGUNTZAK.
Ez utzi aukera pasatzen !!

www.leiholux.net
943 29 09 09

Pol. Belartza
Gurutzezi, 15 - Pab. A-3
20018 Donostia



IÑAX ASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

Mendi Lore
loradenda, jardineritza



Larramendi 5, HERNANI. Tel: 943 55 23 26.